# Galdakaon itxita dagoen zerrategi bateko hiru pabilioiak erre dira

AGENTZIAK | ERREDAKZIOA 2017/02/14

**17:10ean piztu da sutea eta nondik norakoak argitzeko ikerketa abiatu dute. Suhiltzaileek lanean jarraitzen dute, prebentzio moduan.**



Partekatu 0 Tweet G+1 Iruzkinak

BIDEOAK (1)



Sute handia izan da Galdakaon itxita dagoen zerrategi batean

Usansolo auzoan (Galdakao) itxita dagoen egur biltegi batean sua piztu da astearte honetan. Zerrategi horretako hiru pabilioiak erre dira, eta suhiltzaileek lanean jarraitzen dute bertan, txingarrak amatatzeko eta prebentzio moduan.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi duenez, sutea astearteko 17:10ean piztu da. Halaber, itxita dagoen enpresa horretan piztu den sutearen nondik norakoak argitzeko ikerketa abiatu dute.

Sugarrek Usansolo auzoan dagoen egur biltegi horretako hiru pabilioiak kiskali dute. Arrazoi horregatik, Basauriko, Iurretako, Derioko eta Uriosteko suhiltzaileek ere esku hartu behar izan dute.

# Arden los tres pabellones de una serrería desocupada de Galdakao

AGENCIAS | REDACCIÓN 14/02/2017

**El fuego se ha iniciado sobre las 17:10 horas, por causas desconocidas, en esta antigua serrería de Usansolo que permanece desocupada.**

VÍDEOS (1)



Arden tres pabellones de una serrería desocupada de Galdakao

Los tres pabellones de una antigua empresa maderera del barrio de Usansolo de Galdakao han ardido este martes en un **incendio en el que no se han registrado daños personales**, y que esta tarde está siendo sofocado por efectivos de Bomberos.

Según han informado fuentes de la Ertzaintza, **el fuego se ha iniciado sobre las 17:10 horas**, por causas desconocidas, en esta antigua serrería de Gorosibai que permanece desocupada.

Las llamas se han propagado por los **tres pabellones de esta planta**, lo que ha obligado a varias dotaciones de bomberos de los parques de Basauri, Urioste, Iurreta y Derio a desplazarse al lugar de los hechos para tratar de sofocar el fuego.